

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BERANTEVILLAKO UDALA

#### **Behin betiko onestea Berantevillako udalerrian ekintzaileei laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza**

Udalbatzak, 2022ko maiatzaren 9ko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion Berantevillako udalerrian ekintzaileei laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen udal ordenantzari. Erabaki hori jendaurrean egon den aldiaren ordenantzaren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabakia behin betiko bihurtu da, bat etorritoki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49.c) artikuluan xedatzen duenarekin.

Aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, osorik argitaratzen da behin betiko erabakia, eta argitaratzen denetik aurrera aplikatuko da.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritoki.

Horrek guztiak ez du eragozten egokitzat jotzen den beste edozein errekurtsio ere aurkeztea.

Berantevilla, 2022ko ekainaren 30a

*Alkatea*

**MARIO PEREA ANUNCIBAY**

#### **BERANTEVILLAKO UDALERRIAN EKINTZAILEEI LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

##### **1. artikulua. Xedea eta helburua**

Artikulu hauen xedea da Berantevillako udalerrian enpresa jarduerak ezartzeko eta berritzeko finantzaketan laguntzeko Berantevillako Udalak eman ditzakeen laguntza ekonomikoen deialdia eta esleipena arautzea. Horrela, diruz sustatuko da udalerrian aberastasuna sortzen laguntzen duen enpresa-egitura bat sortzea eta abian ipintzea.

Helburua da ekintzaileei laguntzea hasierako eragozpenak gainditzeko, enpresa-munduan abiatu, ezarri eta hasteko faseetan.

##### **2. artikulua. Finantzaketa eta zenbatekoa**

Oinarri hauetan araututako laguntzetarako aurrekontu esleipena, eskaera egiten den unean indarrean dagoen udal aurrekontuko 241.480.000. aurrekontu partidaren kargura izango da.

Eskaerak jasotzeko deialdiaren gehieneko dirulaguntza 1.000 euro izango da. Hala ere, 1.500 euroko dirulaguntza izango da baldin eta jarduera ezartzeko beharrezkoa bada helburu hartarako soilik erabiliko den higiezin bat alokatzea edo erostea.

### 3. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak

1. Diruz lagundu daitezkeen gastuak deialdiaren aurreko urteko abenduaren 1etik uneko deialdiaren urteko azaroaren 30era bitartean egindakoak izango dira. Ez da diruz lagunduko aurretik egindako gasturik.

Gastuaren data fakturarena eta bankuko egiaztagiriarena izango da, eta biak aurreko paragrafoan adierazitako aldiaren barruan izan behar dira.

Honako hauek hartuko dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat:

A) Eraketa gastuak: sozietateak eratzeko kostuak, honako hauetarako direnak: ziurtagiriak, notariotza-gastuak eta erregistro gastuak.

B) Publizitate eta merchandising kanpainak, establezimendu eta ibilgailuetan errotuluak jartzea, errotuluak argizatzea eta publizitatea diseinatu, inprimatu eta eskura ematea. Ezinbestekoa izango da formatu elebiduna izatea (gaztelania eta euskara).

C) Sare sozialetan profila eta edukia sortzea, beste enpresa batzuen webguneetan publizitate bannerra jartzea, webguneen mantentze kuotak, webgunean pluginak sartzearekin lotutako gastuak, eta sare sozialetako sustapen zerbitzuen kostua. Gutxienez urtebeteko epea ezartzen da, eta epe horretan eguneratuta egon behar dute web orriek eta sare sozialek.

D) Proiektu teknikoan eta aholkularitza-proiektuen gastuak: jarduera-lizentzia edo beharrezko beste baimen batzuk lortzeko behar den aurreproiektua, merkatu azterketa eta proiektu teknikoa idazteko kostua.

E) Ibilgetuko inbertsioa. Haren barnean daude: altzariak, hardwarea, makineria eta tresneria. Ez dira sartzen ibilgailuak.

Memorian behar bezala justifikatu beharko da ondasun horiek beharrezkoak direla jarduera garatzeko.

Aktibo horiek beren erosketa datatik gutxienez 2 urtez egon behar dute fisikoki establezimenduan, holako datatzat fakturaren data hartuta.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, fakturan edo gastua justifikatzeko antzeko dokumentuan adierazitako zerga oinarriari dagokion zenbatekoa bakarrik hartuko da kontuan, balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa) eta bestelako zergak kenduta.

### 4. artikulua. Laguntzen izaera

Programa honen esparruan ematen diren laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira.

Dirulaguntzak emateko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da beti, eta norgehiagoka araubidean izapidetu eta ebatziko da, esleitutako kreditua agortu arte.

### 5. artikulua. Onuradunak

Laguntzen onuradun izan daitezke 2020ko urtarrilaren 1az gero udalerrian enpresa ekimen bat abiarazi edo hasi duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak eta ondasun erkidegoak, egoitza fiskala eta sozietatearen egoitza Berantevillako udalerrian badauzkate.

### 6. artikulua. Betekizunak

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan xedatutako betekizun orokorrez gainera, onuradunek honako hauek bete beharko dituzte:

1. Autonomoen araubidean edo mikroenpresa bezala alta emanda egotea (10 langile baino gutxiago dituztenak).

2. Egoitza fiskala eta sozietatearen egoitza Berantevillan izatea.

3. Berantevillako udalerrian erroldatuta egotea enpresaren alta baino 3 urte lehenagotik gutxienez.

4. Negozioa lehenbiziko aldiz deialdiaren urtean edo deialdiaren aurreko urteko urtarrilaren 1a baino lehenago abian ipini izana, Berantevillako udalerrian.

Jarduera hasitzat emango da dagokion errolda-ereduan edo, bide telematikoz eginez gero, dokumentu elektronikoa bakarrean (DUEn) alta ematen zaion egunean.

5. Eskaera egiten den egunean, delako jarduera gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak interesdunaren izenez emanda eduki behar dituzte.

6. Eskatzaileari baja eman ez izana langile autonomoen araubide berezian, jarduera hasi zenetik laguntza-eskabidea aurkeztu arte.

7. Dirulaguntza honen onuradunek egunean izan beharko dituzte zerga arloko eskakizunak dituzten administrazio publikoekiko (Foru Ogasunarekiko eta Estatuaren Zerga Agentziarekiko) eginbeharrak, bai eta Gizarte Segurantzarekiko eginbeharrak ere.

8. Azken 4 urteetan dirulaguntza honen onuraduna ez izatea.

### **7. artikulua. Onuradunen betebeharrak**

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzei buruzkoak, bere 14. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, honakoak onuradunen betebeharrak dira:

1. Dirulaguntza eman duen organoan egiaztatzea laguntzaren emakida oinarritzen duen jarduera aurrera eramaten dela eta baldintza horrek dakartzan betekizunak eta baldintzak betetzen direla.

2. Gizarte Segurantzarekiko eta Berantevillako Udalarekiko betebeharrak betetzen egunean izatea.

3. Jasotako funtsak nola erabili diren frogatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne direla, egiaztapen eta kontrol lanen gai izan daitezkeen bitartean.

4. Dagokion Gizarte Segurantzaren araubideko alta, autonomo gisa nahiz enpresa gisa, 24 hilabetez etengabe mantentzea, eta indarrean egotea eskaera egiten den unean.

5. Emandako dirulaguntza justifikatzea.

### **8. artikulua. Balioespen irizpideak**

Eskabideak ebaluatzeko, honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan ebaluazio batzordeak:

BALIOESPEN IRIZPIDEAK	PUNTUAZIOA
A- Proiektuaren berrikuntza maila	GEHIENEZ 30 puntu
B- Proiektuaren zehaztasun maila	GEHIENEZ 30 puntu
C- Laguntza prozesuetan parte hartzea	GEHIENEZ 20 puntu
D- Emakumeen parte-hartzea (% 50, gutxienez)	GEHIENEZ 20 puntu

A. 30 puntu emango dira proiektuak alderdi hauetan duen berrikuntza-mailaren arabera:

– Ideia berriak, egiteko modu berriak dakartzaten ala ez, edo ekintzailtzako metodologian edo Euskal Autonomia Erkidegoko sektore estrategikoetan berrikuntza dakarten ala ez. (15 puntu).

– Ideia berriak, egiteko modu berriak dakartzaten ala ez, edo ekintzailtzarako eta enplegurako metodologietan berrikuntza dakarten ala ez, ekonomia jasangarriarekin eta enplegu berdearekin, zaintzaren ekonomiarekin edo sektore turistikoekin zerikusia duten sektore ekonomikoetan. (15 puntu).

B. 30 puntu emango dira proiektuaren zehaztasun mailaren arabera:

– Aurkeztutako proiektuaren eta helburuen arteko koherentzia. Enpresa-plana aurkeztea (15 puntu).

– Proiektuaren hurrengo bi urteetarako ekoizpen taula eta gastuak. (15 puntu).

C. 20 puntu emango dira ideiak, proiektuak, dibertsifikazioa etab. garatzeko laguntza pertsonalizatuko zerbitzu batean parte hartu izana egiaztatzeagatik.

D. 20 puntu emango dira proiektua garatzen eta gauzatzen parte hartzen duen emakume kopuruaren arabera:

– Parte-hartzaileen edo administrazio kontseiluko kideen ehuneko 100 kolektibo horretakoak badira, 20 puntu emango dira.

– Parte-hartzaileen edo administrazio kontseiluko kideen ehuneko 75 kolektibo horretakoak badira, 15 puntu emango dira.

– Parte-hartzaileen edo administrazio kontseiluko kideen ehuneko 50 kolektibo horretakoak badira, 10 puntu emango dira.

Berdinketa gertatuz gero, honako lehentasun irizpide hauen arabera zehaztuko da ordena:

a) Artikulu honetako a) irizpidean puntuazio handiena lortu dutenak.

b) Artikulu honetako b) irizpidean puntuazio handiena lortu dutenak.

c) Eskabidea Berantevillako Udalaren sarrera-erregistroan sartu zen lehentasun hurrenkera.

Diruz lagundutako eskabideen gutxienezko kalitatea ziurtatzeko, ezetsi egingo dira proiektuaren balorazioan 40 puntu baino gutxiago lortzen duten eskabideak.

### **9. artikulua. Instrukzioa egiteko eta ebazteko organo eskuduna**

1. Eskaerak ebaluazio batzordearen irizpenaren mende jarriko dira. Batzorde hori hilabeteko epean bilduko da, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Batzordeak honako osaera hau izango du:

– Burua: Alkatea.

– Udaleko arkitekto aholkularia.

– Añanako Kuadrillako Ingurumen teknikaria, udalean lan egiten duena.

– Landa garapenerako elkarteko (LGE) teknikaria.

– Oinarrizko gizarte langilea.

– Udalbatzaren PNV-EAJko ordezkari bat eta AIB-BAIko beste bat.

Ebaluazio batzordea egitez eratzeko, hartako 5 kide bertaratu beharko dira, eta batzordeburuak izendatuko ditu parte hartuko duten teknikariak, dirulaguntzaren xedea den proiektuaren helburuaren arabera.

2. Batzorde horrek, irizpena emateko instrukzioan, jarduera hauek gauzatu beharko ditu:

a) Beharrezkotzat jotzen dituen txostenak eskatu.

b) Eskaerak ebaluatu, oinarri arautzaile hauetan zehazten diren irizpideen arabera.

3. Alkatetzak, ebaluazio batzordeak proposatuta, dirulaguntzak emateko ebazpena emango du, arrazoiak azalduta. Ebazteko epea 15 egunekoa izango da, ebaluazio batzordeak irizpena ematen duen egunetik zenbatzen hasita.

Ebazpena epe horretan ematen eta jakinarazten ez bada, eskaera ezetsizat jo beharko da. Ebazpenak administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8,1.c) artikuluan xedatzen duenaren arabera. Horretarako bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Horren aurretik, errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Berantevillako Udaleko alkatetzari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatzen duenarekin bat etorriz.

#### **10 artikulua. Beste laguntza batzuekin bateratzea**

Deialdi honetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuek ematen dituzten eta kontzeptu berberak diruz laguntzen dituzten beste batzuekin. Hala ere, helburu horretarako dirulaguntzak ematen dituzten beste erakunde edo organismoek bi laguntzen bateraezintasuna ezarri ahal izango dute.

Hala ere, dirulaguntzaren zenbateko osoak ezin izango du gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez bakarrik, ez beste laguntza, dirulaguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera.

#### **11 artikulua. Eskaerak aurkezteko tokia eta epea**

1. Eskaerak, nahitaezko agiriekin batera, Berantevillako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoa betez.

Eskabidea aurkezteak berekin dakar oinarri hauen edukia onartzea.

2. Eskaerak aurkezteko epea, urte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan emango da argitara, dago-kion deialdian. Argitalpena ALHAOn, udalaren web orrian eta udaletxeko iragarki-taulan egingo da.

#### **12. artikulua. Akatsak zuzentzea**

Dirulaguntzak eskuratzeko eskabideek ez badituzte betetzen artikulua hauetan eskatzen diren baldintzak, edo eskabidearekin batera ez badira aurkeztu eskatutako agiriak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeko 71. artikulua araberan, dei egingo zaie interesdunei, 10 egun baliouduneko epean akatsak zuzendu edo nahitaezko agiriak aurkez ditzaten. Halaber, jakinaraziko zaie ezen, halakorik egin ezean, beren eskarian atzera egin dutela ulertuko dela eta beste izapiderik egin gabe artxibatuta geratuko dela, lege horretako 42.1 artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

Eskaera ez da bideratuztat joko, harik eta behar bezala beteta eta espediente osatuta egon arte. Espediente osatuta egoteko, bada, entregatutako dokumentazioa erregistratuta egon beharko da.

#### **13. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak**

Hona hemen aurkeztu beharreko agiriak:

1. Eskabidea eredu normalizatuan (l. eranskina). Eskatzaileak sinatuta egon beharko du, eta, horretarako, legezko ordezkari duela egiaztatu beharko du, zuzenbidean onartutako edozein bitartekoren bidez.

2. Garatu beharreko enpresa-jarduera eta dirulaguntza-eskaeraren xedea den gastua deskribatzen dituen memoria. Formatu hau izan beharko du:

– Luzera: Gutxienez folio 1 – Gehienez: mugarik gabe.

3. Identifikazio agiria:

– Pertsona fisikoa: NANA.

– Pertsona juridikoa: Identifikazio fiskaleko txartela eta eraketa-eskritura, hala badagokio. Betiere, haren legezko ordezkari duela egiaztatu beharko du ordezkariak.

4. Dirulaguntza ordaintzeko erabiliko den banku-kontuaren zenbakiaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria.

5. Gizarte Segurantzaren araubide egokian alta eman izanaren egiaztagiria.

6. Jarduera ekonomikoen gaineko zergako alta eta errolda-aitorpena. Jatorrizkoa eta konpultsatzeko kopia (840 eta 036/037 ereduak).

7. Jatorrizko fakturak eta haien ordainagiriak (bankuarenak).

Ez da onartzen eskudiruzko ordainketarik.

8. Ondoko hauekin egunean dagoela egiaztatzen duten ziurtagiriak:

– Arabako Foru Ogasuna.

– Zerga Agentzia.

– Gizarte Segurantza.

Ziurtagiriek ezingo dute 2 hilabete baino gehiagoko antzintasuna izan.

#### **14. artikulua. Ordaintzeko modua**

Alkatetzak eskabideak ebatzi ondoren, laguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, diruz lagundutako gastuen jatorrizko fakturak edo fotokopiak eta konpultsatuak aurkeztu ondoren, betiere aurreko baldintzak betetzen badira.

#### **15. artikulua. Arau haustek eta zehapenak**

Dirulaguntzen arloko arau hauste eta zehapenei buruzko gaietan, osorik aplikatuko dira Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan eta haren araudia onetsi zuen 887/2006 Errege Dekretuaren IV. tituluan jasotako aginduak.

#### **16. artikulua Laguntzak itzultzea**

1. Dirulaguntza osorik edo haren zati bat itzultzeko erabakia dirulaguntza ematen duen organoak hartu beharko du, betiere proportzionaltasun printzipioari jarraituz eta honako inguruabar hauek kontuan hartuta:

- a) Emakida-erabakiaren ondoren, eskatutako baldintzak betetzen ez direla egiaztatzea.
- b) Justifikatzeko obligazioa ez betetzea.
- c) Finantza-kontrolako jardunei gogor egitea, oztopoak jartzea, edo ezezkoa ematea.
- d) Enpresaren jarduerak 24 hilabetez jarraitzeko baldintza ez betetzea.
- e) Ordenantza honetan ezarritako beste edozein betebeharrak ez betetzea.

#### **17. artikulua. Konfidentzialtasun klausula**

Berantevillako Udalak, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten du ezen eskatzaileen datu pertsonalak erakunde horren fitxategietan gorde ahal izango dituela. Fitxategi horien helburua erakundearen jarduerak zabaltzea eta sustatzea da. Horrenbestez, interesa dutenek hala nahi badute, datuak ikusi, berretsi, deuseztatu eta aurkaratu ahal izango dituzte, Udaleko informazio eta erregistro zerbitzuaren bidez.

#### **18. artikulua. Araudi aplikagarria eta araubide osagarria**

Oinarri arautzaile hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onesten duena.

#### **19. artikulua. Indarrean jartzea**

Laguntza deialdi hau eta oinarri arautzaileak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

**I. ERANSKINA – BERANTEVILLAKO UDALERRIAN EKINTZAILEEI  
LAGUNTZEKO DIRULAGUNTZA-ESKAERA****1. ENTITATEAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK (ENPRESA IZANEZ GERO):**

SOZIALATEAREN IZENA	IFK
ZERGA EGOITZA	
HERRIA ETA POSTA KODEA	TELEFONOA
POSTA ELEKTRONIKOA	

**2. LEGEZKO ORDEZKARIAREN EDO, HALA BADAGOKIO, AUTONOMOAREN DATUAK:**

IZEN-ABIZENAK	
DAUKAN POSTUA	
NANa	
JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA	
POSTA ELEKTRONIKOA	
TELEFONOA	
AHALORDETZEIA	

**AZALTZEN DU** Berantevillako udalerrian ekintzaileei laguntzak emateko ordenantza arau-tzailearen eduki osoa ezagutzen due (ALHAOn argitaratua, ..... zenbakian, .....(e)ko .....aren .....(a) eta

**BAIMENA EMATEN DIOLA** Berantevillako Udalari hauei buruzko informazioa biltzeko:

- Udal Diruzaintzerekiko egoera.
- Eskatzailearen erroldatzea.

**ADIERAZTEN DU**

– Erakundeak egunean dituela zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta udal ogasunarekiko betebeharrak, eta egoera horren egiaztagiriak aurkeztu dituela.

– Eskatzailea eta bera ordezkatzan duen erakundea ez daudela Dirulaguntzei buruzko aza-roaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako egoeretako batean ere.

– Ez duela jaso beste dirulaguntzarik edo diru sarrerarik dirulaguntza-eskaeraren xedea den jarduerarako; bestela, beste dirulaguntzen zenbatekoa eta erakunde emailea adieraziko dira, eta zenbateko guztiak baturik ezin daitezke heldu diruz lagundu daitekeen aurrekontu osoaren zenbatekora.

– Adierazten dut erakunde eskatzaileari ez zaiola ezarri dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapen administratiborik edo penalik, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu arrazoien ziozko bereizketagatik ezarritakoak barne.

**HIGIEZINA DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERARAKO SOILIK ERABILTZEKO  
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA (hala dagokionean bakarrik bete)**

.....jarduera ezartzeko,  
.....n dagoen higiezin  
..... (alokatu/erosi) dut, jarduera egiteko bakarrik erabiliko dena.

Helburu hori betetzen ez bada, udalari jakinaraziko zaio, eta legez dagokion itzultze-proze-durari jarraituko zaio.

Data, sinadura eta NANa

**HORREGATIK GUZTIAGATIK, DIRULAGUNTZA ESKATZEN DUT GASTU HAUETARAKO**

PROGRAMA	FAKTURA ZENBAKIA	DATA	HORNITZAILEA	KONTZEPTUA	ZERGA-OINARRIA	BEZA	GUZTIRA

**ONDOKO DOKUMENTAZIO HAU ERANTSITA (MARKATU X BATEZ)**

	Garatuko den jarduera eta egindako gastuaren beharra eta egokitasuna deskribatzen dituen memoria
	Jarduera ezartzeko eta garatzeko behar diren baimenak eta lizentziak
	NANa
	Enpresaren IFK
	Eraketa-eskritturak
	Ahalordetzea
	Bankuko kontu-zenbakiaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria
	Gizarte Segurantzaren araubide egokian alta eman izanaren egiaztatzea
	036/037 eredia
	840 eredia
	Jatorrizko fakturak
	Banku ordainagiriak
	Foru Ogasunarekin egunean egotearen ziurtagiria
	Zerga Agentziarekin egunean egotearen ziurtagiria
	Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen ziurtagiria
	Lan-bizitzaren txostena
	Higiezinaren salerosketa-eskrittura edo alokairu-kontratua

Berantevilla, .....

Izena eta sinadura: